



8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresa egoki funtziona dezan hurrengo **funtsezko jarduerak** burutu behar ditugu:

Hasteko ezinbestekoa da, irati basoan txangoak egin ahal izateko **baimena** eskatzea. Erantzuna baiezkoa denean irati basoa aztertu eta ibilbide egokiak pentsatu eta **antolatuko** ditugu. Horrekin batera, ibilbide guztietan **jolas gune** ezberdianak prestatuko ditugu, nahi duenak, haur zein heldu, jolasteko.

Segidan, **profesional edo aditu** ezberdinekin kontaktu jarriko ginateke eta haiekin elkarlanean aritzeko hitzarmen bat adostuko genuke.

Aurrekoarekin batera, gure **lokala** prestatzen hasiko ginateke eta bezeroei harrera egiteko leku txukun bat antolatuko genuke. Horretaz gain, materiala gordetzeko biltegi bat izango dugu, txangoetarako ezinbestekoak diren arropentzako.

Gaua pasatzeko asmoa duten bezeroentzat ekintza ezberdinak antolatuko ditugu, gure lokalean edo herrian zehar. Talde bakoitzaren ezaugarrien arabera antolatuko lirateke ekintza hauek.

Gaua pasatzeko asmoa duten bezeroentzat aukera ezberdinak eskeiniko ditugu. Batetik, furgoneta edo autokarabanentzako **aparkalekua** prestatuko dugu. Bestetik, Otsagabia herriko **ostatu** batekin gure bezeroak bertan geratzeko aukeraz ere hitz egingo genuke, bientzako onura dakarren adostasun batera iritsiz.

Gure enpresa ezagutarazteko **web orria** diseinatu dugu, baita **sare sozialetako** profilak sortu ere, bezeroengana iristeko helburuarekin. Horretaz gain **publizitate** kanpaina bat sortuko dugu. Komunikabide ezberdinetara bidaliko dugu, hala nola prentsa, telebista, irratia... Bestetik, kartelak eta triptikoak ere egingo ditugu udalerrri ezberdinetan banatzeko.

Behin jendearengandik feedback-a jasotzen dugunean, estimatu genezake gutxi gorabeherako bezero kantitatea, eta horren bitartez **autobus zerbitzuarekin hitzarmena** egingo genuke urte osorako bidaiak eta horien prezioak adosteko. **Ostatuaren** eta **arroparen** kasuan ere, informazio honetaz baliatuko gara, bi hauekin hitzarmen zehatz bat egiteko, eta martxan jarriko genuke gure enpresa.

Bukatzeko, oso garrantzitsua iruditzen zaigu bezeroen iritziak eta hobekuntza proposamenak entzutea. Beti dago zerbait ikasteko, eta horregatik irteera bakoitza amaitzen denean, honen **ebaluazioa** burutuko dugu.

BIZIRIK



OTSAGABIA

IRTEERAK

IRATI

BASORA



Arakatu gure web orria eta animatu zaitezte naturaz
gozatzeraz www.Bizirikirteerak.eus